

2009ko ekainaren 8tik 13ra
Arantzazu, Afrikarekiko elkargune

Afrika

09



2008an egin genuen **galdera:**

Egin gabe dugun horretan, zerbait gehiago egin dezakegu Afrikan giza duintasunaren alde egiteko?

2009an praktikara eraman nahi dugun **erantzuna:**

Lankidetzarako senidetze kontzeptua bultzatzea eta partekatzea

Antolatzaileak:

baketik
Bake zentrea
Gatazken lantze etxea



Babeslea:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA



DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES

Ez gara konformatzen. Afrikandugu proposamena

Milaka dira Europako erakunde sozialen elkartasun- eta lankidetzeta-egitasmoak Afrikarekiko, eta ugariak dira ekartzen dituzten onurak. Hala ere, Afrikako errealtate osoarengan duten eragina oso txikia da. Asko da egiten eta lortzen ari dena, baina beharrezkoa da, aldi berean, defizitak ere onartzea.

Lehen lehenik, Afrikarekiko konpromisoan partaide diren sektoreak gutxi dira. Bestetik, elkartasun-erakundeek ez dute konpartitzen ekintza-eremurik beren lana eraginkorragoa egiteko. Azkenik, orokorrean, eta are gehiago krisi ekonomikoaren esparruan, egoerak ez du hobera egiten, okerrerako joera hartu du, eta horrek lortu nahi den helburutik aldendu egiten gaitu: Afrikan giza duintasuna eta justizia lortzetik.

Afrikarentzat egitasmo duinetan, bidezkoetan eta beharrezkoetan ahalaginak egiten dituzten hainbat erakunderi eta pertsonari errespetu eta miresmen guztiaz, eta umiltasun osoz, esan behar dugu ez garela konformatzen. Asmoa ez da inolaz ere kritikatzeko edo orain arte egin dena egiteari uztea. Zer gehiago egin dezakegun elkarrekin pentsatzea da kontua hemen eta han eraldaketa-baldintza berriak sortzeko.

Horren inguruan jorratu nahi dugu Afrikako III. Astea. Eztabaida hori eta berau dinamizatzeko ekimena jarri nahi dugu mahai gainean: Afrikandugu proposamena, lankidetzarako senidetzeen irudia konpartitzea eta bultzatzea bilatzen duen proposamena. Astelehenetik ostiralera bitarteko ikastaroan Afrikako bost gonbidatu izango ditugu irudi horrek eskaintzen dituen aukerak aztertzeko. Larunbatean Afrikandugu proposamena aurkeztuko dugu horren inguruan eztabaidatzeko.

Ndugu anai-arreba da swahiliz. Horrela, Afrikandugu Afrika anai-arreba bezala itzul daiteke. Euskaraz Afrikan duguk beste esanahi bat dauka. Hau da kontua: Afrikan sufritzeari uzten ez dion anai-arreba bat daukagu.

Ekainaren 8tik 13ra, Arantzazu Afrikarekiko elkargune bilakatuko da galdera honi erantzuteko. Parte hartzera gonbidatua zaude.

Informazio gehiago edo izen-ematea:

943 251005 - arantzazu@baketik.org - www.baketik.org

Afrikari buruzko III. Astea Arantzazun

09

Astelehenetik ostiralera, 18.00etatik 20.00etara, **ikastaroa:** lankidetzarako senidetzeari buruzko aukerak, Mbuyi Kabunda irakasleak zuzenduta

Larunbata: jarduera sozialak

| Astelehena 8 | Asteartea 9 | Asteazkena 10 | Osteguna 11 | Ostirala 12 | Larunbata 13 |
|---|---|---|--|---|--|
| <p>Gaia: Osasuna eta lankidetzarako senidetzeak.</p> <p>Hizlariak: ·Esperance Bamiriyi. Sudan. ·EHUko Erizain Eskolako ordezkari bat.</p> | <p>Gaia: Eredu ekonomikoak eta lankidetzarako senidetzeak.</p> <p>Hizlariak: ·Marie Bernadette Kabre. Burkina Faso. ·REAS-Euskadiko ordezkari bat</p> | <p>Gaia: Nekazaritza-elikadura eta lankidetzarako senidetzeak.</p> <p>Hizlariak: ·Tchenti Bertin Tantcheita. Benin. ·Itsasmendikoiko ordezkari bat.</p> | <p>Gaia: Hezkuntza eta lankidetzarako senidetzeak.</p> <p>Hizlariak: ·Michael Omondi Owiso. Kenya. ·Baketik-eko ordezkari bat.</p> | <p>Gaia: Estatu- eta garapen-eredua eta lankidetzarako senidetzeak.</p> <p>Hizlariak: ·Edwin Nebolisa Nwakaeme eta Marshal Amaechi Uche. Gambia. ·Giza Eskubideen Pedro Arrupe Institutuko ordezkari bat.</p> | <p>11.30ean. Mahai-ingurua Mbuyi Kabundarekin eta Jonan Fernandezekin Afrikandugu proposamenari buruz.</p> <p>14.00etan. Herri-bazkaria.</p> |

·Ikastaroa Arantzazuko Gandiaga Topagunean izango da. Izen-ematea 943-251005 telefonoan egin daiteke. Ikastaro osorako matrikularen prezioa 35 eurokoa da eta egun solteena 10 eurokoa.

·Beharrezkoa da larunbateko bazkarirako izena ematea 943-251005 telefonoan. Prezioa: 15 euro.

·Arren, larunbateko hitzaldirako telefono berean izena ematea eskatzen dizuegu.

·Afrikandugu proposamen-txostena www.baketik.org web gunean lor daiteke.